

## LAUDIO UDALA

Laudio Udaleko alkate-udalburuaren Dekretua, 2019ko abuztuaren 7 eguneko, Ganbegi 6-2 Hockey Taldearen diru-laguntza izendunaren hartu zuen erabakiaren laburpena.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, Laudio Udaleko alkate-udalburuak 2019ko abuztuaren 7an hartu zuen Dekretuaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa.- Onuraduna.

Ganbegi 6-2 Hockey Taldea

Bigarrena.- Xedea.

2019ko udal aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izenduna ematea, txapelketa ezberdinak antolatzeko:

- XXIV. Hockey Herri Txapelketa
- Umeentzako 3x3 XVIII. Hockey Txapelketa
- XLIII. Torneo Hockey Laudio

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak.

2019ko abuztuaren 7 egunean Laudio Udaleko alkate-udalburuaren 1958 zk. hartutako Dekretuaren bidez. 2019ko abuztuaren 30 egunean Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren jakinarazita.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Diru-laguntza honen kopurua 3.080,00 euro izan da.

- XXIV. Hockey Herri Txapelketa..... 1.090,00 euro
- Umeentzako 3x3 XVIII. Hockey Txapelketa... 590,00 euro
- XLIII. Torneo Hockey Laudio..... 1.400,00 euro

Bosgarrena.- Diru-laguntza justifikatzeko epea

Diruz lagundutako jarduera egin eta bi hilabetera bukatuko da epea

Laudio, 2019ko irailaren 4a

Alkate-udalburua, ANDER AÑIBARRO MAESTRE